

Sarreren

# salmonta

kutxazainetan



**Ez zaitez egon ilaran itxaroten**

Orain, hainbat zinema eta ikuskizunetarako sarrerek, era erraz eta erosoan lortu ditzakezu BBK-ko orotarako kutxazainetan edo 944 310 310 telefonora deituta.

**bbk**

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA


Lege gordailua: BI-85-98  
ISSN: 1577-9025

2002ko IRAILA / 47. zkia. DOHAIN

*AEK Eguna*

*Amagoia Aguado  
Mahatsorri bat  
Nikaraguan*

*Hektor Serna DJ*



**Ibon Arbulu**

**"Euskal Herria beste marko batera eramango dugun beldur da Estatua"**






## Luis Briñas eskola

*Santutxuko bihotzean altxatu eben Luis Briñas eskola 1930 urte aldera. Pedro Ispizua arkitektuak egin eban diseinua eta Bilbon gitxitan ikusitako estiloan -arrazionalismoa- gauzatu eban. Ordurako Santutxu aldean gero eta jente gehiago bizi zan. Bilboko beste bazter batzuetan be bardin antzean ebilen. Horregaitik, Bilboko Udalak eskolak egiten hasi zan euskal arkitektu onenen proiektuakaz. Indautxu, Berastegi, Atxuri eta beste hainbat auzotan eskola ederrak altxatu ebezan. Santutxukoa azken urteotan barriztatu dabe eta gaur egun eder eta galant ikusten dogu Iturriaga kalean. Erretratuan Luis Briñas eskolako gaur egungo atzekaldea ikusten dogu. Gaur ezin da bista hau eskolatik kanpo ikusi.*

Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia .....	.4	▶ Inkesta .....	.19
▶ AEK Eguna .....	.5	▶ Mahatsberriak .....	.20
▶ Begoña eta Euskerea .....	.8	▶ Hezkuntza .....	.24
▶ "Zu zeu" .....	.10	▶ Mendi Ibilbidea .....	.27
▶ Amagoia Aguado.		▶ Hektor Serna DJ .....	.28
▶ Mahatsorri bat Nikaraguan .....	.12	▶ Horoskopoa/Agenda .....	.30
▶ Elkarrizketa: Ibon Arbulu .....	.15	▶ Hileko Argazkia .....	.31

Sexue, drogak ta rokanrola, halantxe esan zauen defuntuek, ta handik urtetxuek joan badirez bere, gaurregunien bere holantxe ixen bierko da, ze mundue zelan jabilkun ikusitte... Orduen sasoidxen esaten zeurien hoba ixengo zala hirugarren gerra mundialak ohien atrapatzen bagaittu, narruten, rokanrola belarridxen ta felizidadie begidxetan.. Oraingoan barriz, detailtxu batzuk gora-behera bardin-bardin esan likitte. Narrue ondo engomaute, ambient-house-trance-dance-jarkore-drumanbasa ta gure dozuen guztidxe aparatuen (hori bai, pintxa onak ifinritte), ta felizidadie bere bardin-bardine: estasidxe, barrebuse, urune, arin-arine edo saltaparapetosa... orgasmoaaa... Ta zek atrapauko gaittu? Ba lehengo-

an pentsaten zan bonbatomikoa-edo ixengo zala, gaur, barriz, edozer ixen likitte; bonba kimikoa, bonba bateriologikoa, bonba humanoa, bonba judiciala, bonba musikala (la bombaaaa.....), bonba inteligentie edo bonba lerdoa... Bardin dotza, edozer datorrela bere, datorrenien egon gaittezan pozik ta gusture!

Enfin lagunok, hamen behintzet (leiduixue Berton hau ba) preparaute gaoz azkanengo atakerako: gomak, pintxak, jeneroa, organizazioa, ta kasko azulek bere bai... Ez gagoz keiateko moduen, ganera, ez daurie esan keiate bere delitue dala? apues, agosssssaaaaarrrrr!



# GURE BAZTERRAK

BEGOÑAKO ELEIZATEAN 'BEGOÑA' TOKI-IZENA DAUKEN HAINBAT LEKUREN IZENAREN ESANGURAREN INGURUAN



Uste izatekoa zan, eta horrelaxe jazoten da, Begoñako eleizatean topatzea hainbat toki, 'Begoña' toki-izena daroenak: Begoñazpi, Begoñako Andramari, Begoñalde...

Lehenengo eta behin, Begoñazpi izena aztertuko dogu. Horretara, bada, Begoñazpi kalea Iturrialde inguruan dago, Iturribide eta Prim kaleen goiko aldean hasten da, eta Aurrekoetxea eta Prim kaleak eurak batzen ditu. Beraren lekua Begoñako Andra Mariaren basilikaren Artagan menditxuaren beheko aldean jarri behar dogu, eta hortik jatorko izena, Begoñaren azpian dago eta.

Hurrengo, Begoñako Andramari erabiliko dogu (ez, Begoñako Andra Maria). Izen hau hartu eban etxebizitzaren multzo batek; egin-eginean bere, etxe horreek Begoñako Andra Mariaren basilikatik hur dagoz. Bada, etxe multzo horren mugak Zurbarango bidea eta Atxetakoia dira.


Azkenik, Begoñalde toki-izena hartuko dogu gogoan. Izen hori hartzen dau Zumalakarregi etorbidearen ganeko aldean dagozan etxeen multzo batek. Paraje hau mugatzen dabe Atxetako bideak, Zurbarangoak eta Lezamako trenbide zaharrak.

GOTZON LOBERA REVILLA

## MALLONAKO KANPOSANTUA

Bilbo hiri historikoaren erditik, Laguntzaien plaza esaten zaion tokitik, gaur egungo Unamuno plazatik hain zuzen, bide bat hasten da Begoñako elizate zaharreko bihotzaren erdiraino.

Bide hori, Mallonako kalezada alegia, Artagan muinora igotzeko aldats gogorrear gora abiatzen da. 1745ean forma bikoitza eman zioten bideari: alde batetik eskaile-



ak -atsedenlekuak tartekatuaz- eta ondoan aldapa luze bat. Bidean gora goazela, ezkerretara Mallonako kanposantu zaharreko atea topatuko dugu. Hilerria 1828 eta 1830 urte bitartean eraiki zuen Juan Bautista Belauntzaran arkitekto lekeitiarrak. Kanposantuak 1927 urtera arte iraun zuen, harik eta Deriok ordezkatu zuen arte.

Kanposantuko ate edo sarbide hori Billboko neoklasizismoaren obra aparta baten azken arrastoa da. Mugimendu horrek Atxuriko ospitala (gaur egungo lanbide heziketa institutua) eta Plaza Barria ere utzi zigun. Kanposantua 78 x 91 metroko errektangulo baten moduan antolatu zuen. Barrutik zutoin doriarez apaindutako arkupeak inguratzen zuen. Hilerriarren buru aldare bat jarri zuen.

Ate eder hori arkitektura erromatarraren garaipen arkuen oihartzuna da. Izan ere, ongi etorria emateko modu bat zen, beste mundura sartzeko tenorean. 1870an hilerri barruan Bilboko setioetan jausitakoen omenezko mausoleum txukuna eraiki zuten. Gaur egun kanposantu zaharra futbol zelaia dugu eta ondare arkitektonikoaren arduradunen alferkeria denon begi bistan dago.

IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**ARGITARATZAILEA:**  
Batana Batu Kultur Elkartea

**ERREDAKZIOA:**  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta:  
berton@euskalnet.net

**ZUZENDARIA:**  
Hektor Ortega  
**ERREDAKZIOA:**  
Arrate Diez,  
Joana Etxebarria, Irune Berro, Iratxe Ruiz, Erdoitza Martínez Unai Cuevas

**ARGAZKIAK:**  
Iñigo Azkona eta Xabier Herrera

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
Iñaki Berastegi  
Joseba Barrenetxea

**KOLABORATZAILEAK:**  
Jaione Letamendia, Itxaso Perez, Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola, Iñaki Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,  
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:**  
Koldo Urrutikoetxea,  
Zurine Martinez

**LEGE GORDAILUA:**  
Bi-85-98

**ALE KOPURUA:**  
1.200

# AEKeguna, Santutxu mapan jarriko duen eguna

LEHENENGO ALDIZ NAZIO MAILAKO EKITALDIA EGINGO DA

AUZO MAHATSORRI HONETAKO KALEETAN

**aekeguna**  
Santutxu 2002

urriak 27

2002

**metroz metro,  
beti euskaraz**

*Urriaren 27 Santutxuk zer esana emango du. Izan ere, egun horretan milaka lagun hurreratuko dira bazter mahatsorri horretako kaleetara. Noren deialdiari erantzunez? AEKrenari, jakina, AEKeguna aurten Santutxun ospatuko dutelako. Euskaltzale, badakizu, markatu egizu gorriz zure agendan datorren urriaren 27a. Ez zaizu damutuko.*

Testua: H. O.  
Argazkiak: BERTON/AEK

**IRUDIA SORTZEN DUGU**  
BILBO

Santutxu kalea, 46  
Tfnoa: 944 333 935  
Santutxu kalea, 37  
Tfnoa: 944 128 714

www.bilbooweb.com/Spedro  
E-Mail: iban.lopez@navigalia.com

**HORTZ KLINIKA**  
GERMÁN BERGARETXE

GABRIEL ARESTI, 30 4. G  
TXURDINAGA

94 412 82 74

**CYBER TIME**

Ordenagailua gurea da  
ideiak, zureak

Sarean jotásak  
Internet  
Inprimaketa  
Eskanerra  
Datu grabaketa...

Aita Pernet, 1  
48004 Santutxu  
Bilbo

Tfnoa/faxa: 94 459 74 06  
E-mail: cyber-time.euskalnet.net  
http://www.cyber-time.euskalnet.net



'Metroz metro beti euskaraz'. Horixe izango da aurtengo AEKeguneko lelo nagusia. Berba joko horren bidez AEKren ibilbide luze eta emankorra milaka lagunek egunez egun urratu dutela adierazi gura dute. Eta Bilboko metroa ere horixe dagoela, nahi duenak har bezala AEKegunera joateko/etortzeko. Zergatik? Santutxun egingo delako.

Hala da. Aurtengoa hamabosgarren AEKeguna da eta, lehenengo aldiz, ez da herri edo hiri oso batean izango, auzo batean baino. "Horixe du aurtengo AEKegunak berezitasuna, duda barik. Hasieran zalantzak sortu ziren baina guk erakutsi nahi genuen hiri handi bateko auzo batean ere egin daitekeela", azaltzen du Kristina Antonek, Santutxuko AEKeguneko arduraduna. Iaz, atera kontuak, Zestoa hartu zuten biltokiztat.

Ildo horretatik segituz, Santutxuk ezaugarri nabarmenak ditu. "Bilboko auzorik populatuena da, milaka lagun bizi dira bertan. Bestalde, hemen euskaldun asko dago eta gainera auzo hau aitzindaria izan da euskalduntze eta alfabetatze lanean", gogorarazten digu Kristina Antonek. "Azken finean, hiri jendetsu bateko auzo batean euskaltzale mordo bat batu nahi dugu", zehazten du AEKko arduradunak.

Beraz, Santutxuk mugari bat jarriko du AEKegunaren historian. Baina AEKegunak ere Santutxu markatuko du. Izan ere, gure datuak erratuta ez badaude, hauxe izango da Santutxun egingo den lehen ekitaldi nazionala.

#### URTEETAKO LANA OMENDU

Santutxuko euskara eskolak duela 35 urte hasi ziren. Harrez gero milaka lagun ibili dira euskal eskolan, gau eskolan, AEKn... euskara ikasten edo euskaraz alfabetatzen. Jardun horretan lagundu duten guztiei omenal-



#### Munduan dugun bazterra (AEKeguneko kanta)

Bazterrean dugun mundua agian  
Ala munduan dugun bazterra.  
Euskalduna parkeko hirusta agian  
Ala parkeko hirusta euskalduna.

Norberaren esku

Surik gabeko tximinia agian  
Ala gabeko tximiniko sua.  
Metro gutxi duen pisua agian  
Ala pisu gutxi duen metroa.

Galipotean txintxirrinka  
Porlana margotuz

Entzuxu, zer dan zer ez dan norbere esku  
Entzuztaxu, aekeguna Santutxun.

Kirmen Uribe Urbietta



Kristina Anton, AEKeguneko arduraduna.

#### AEKEGUNeko SEKRETUAK

1. Zirkuitua: Santutxuko bihotzean hiru gune atonduko ditu AEKk. Karmelo eta Basarrate bezalako tokietan egokituko dituzte.
2. Guneak: Gune bakoitzak ezaugarri bana edukiko du. Bat umeei begira prestatuko dute. Beste bat esparru rokeroa izango da eta hirugarrena folkari eskainiko diote.
3. Hasiera: Lehenengo kalejira egingo da Arbidea kaleko euskaltegitik Karmelo plazara. Bertan, hamabi eta erdietan hasierako ekitaldia egingo da. Gaztedi dantza taldeak agerrialdia egingo du, Santutxuko AEKko laguntzaileak omen-dukiko dituzte, AEKko nazio arduradun bat mintzatuko da jendaurrean eta, azkenik, AEKeguneko kanta abestuko dute.
4. Umeentzat: Euskal Telebistako 'Betizu' etorriko zaie bere ekipo osoarekin. Gargantua ere agertuko da eta arratsaldeko bostetan pailazo ospetsu-ospetsuen txanda hasiko da.
5. Txosnak: Herri jaialdi guztietan legez, txosnak jarri, jarriko dira. Gune bakoitzean txosna bana edo bina atonduko dute AEKkideek. Herri bazkaria ere ez da faltako. Hamar eurotan inddabak, redondo, tarta, kafea eta patxarana.
6. Kontzertuak: Rock kontzertuan Piztiak, Kuraia eta Zea Mays taldeek joko dute. Folk kontzertuan, besteak beste, Anje Duhalde arituko da. Musika atalean triki-trixa, fanfareak, Txatunga Benbe eta 'berbena' Triki-zio bandarekin ere sartuko dira. Eta erraldoiak ahaztu barik.
7. AEKeguneko kanta: Kirmen Uribe olerkari ondarrutarrak egin du eta 'Piztiak' taldeak musikatu eta kantatzen du. Zer entzuna badago.
8. Bertsolariak: ETBko Josu Goikoetxea gai-jartzaile dutela, Arkaitz Estiballes, Unai Iturriaga, Amets Arzallus eta Oihane Enbeita arituko dira bertso kantari.
9. Artisautza: Jai herrikoia izanda, herriarengandik datozen artelanak ere erakusgai jarriko dira. Artisautza erakusketara polita jarriko da ikusgai.
10. AEKegunetik Korrikara: AEKeguneko karteletako protagonista har bat da. AEKegunearan harra dena tximeleta ederra bihurtuko da Korrikako kartelean.

dia egingo zaie AEKegunaren hasierako ekitaldian.

Gaur egun helduen euskalduntzea ez dago bere unerik goxoenean. Euskal Herriko bazter gehienetan legez Santutxun ere ikasle matrikulak makaldu dira azkenaldion. "Beherakadaxoa sumatzen da. Ikasle gutxiago dago urterik urte", dio Kristina Antonek. Iaz 400en bat izan ziren Santutxuko AEKn euskara ikasten aritu zirenak. Datorren ikasturteari begira ezin da oraindik gauza handirik esan, matrikula garaian gaude eta.

Santutxuko AEKn hamazortzi irakasle eta langilek egiten du behar. Denboraren poderioz ikasle tipoa aldatu da eta gaur egun euskara ikasteko arrazoiak nahikoa nabarrak dira. "Batuzuek EGA behar dutelako datoz, beste batuzuek euskara ikasi nahi dutelako, euskaldun izan gura dutelako... Eta azkenaldion gero eta ugariagoak dira gurasoak. Seme-alabek B edo D ereduatan matrikulatu dituzte eta eurek ere euskaraz ikasteko beharrez sentitzen dute", argitzen du Kristinak.

Santutxun euskara eskolak hasi zirenetik hona gauzak zeharo aldatuta daude, jakina. AEKeguneko arduradunaren iritziz, alde handiena metodologian egon daiteke. "Garai haietan euskaraz zekienak irakasten zuen, beste barik, eta gero 'Euskalduntzen' sortu zuten, Santutxuko batzuk tartean zebiltzala".

Gaur egun AEKk Santutxun lokal bi ditu. Bata Aita Pernet kalean eta bestea, nagusia, Arbidea kalean. Aurreko urteetan, helduen euskalduntzeak ikasle gehiago ekartzen zituenean, AEKk bazituen Mahatserrian euskaltegi gehiago. Urribarrin, Zurbaranen eta Otxarkoagan eskolak ematen ziren. Gaur egun, Santutxuko bi hauek dira gurean AEKk dituen lokal bakarrak.

#### EUSKARA GUREAN

AEKkoek helduen euskalduntzea zelan doan jakiteko ez eze euskararen egoera zein den neurtzeko datu zehatzak eduki badauzkate. Kristina Antonen iritziz, Santutxun euskarak aurrerapausoak eman, eman ditu. "Urterik urte hobetuz doa. Gero eta euskaldun gehiago dago gure bazter honetan", dio.

Hala ere, badago kezkatzeko arrazoirik. "Kopuruetan gorantz joanda ere, euskararen erabilera ez da sumatzen", zehazten du. Euskara gutxi entzuten da oraindik ere bazter mahatsorri horretan.

Salaketak Enkestak  
Txaskarrilloak Otxarkoaga eta txurdinagan  
**WWW.PA-YA.ORG**  
Berriak Herri mogimendua Euskal kultura  
Gure presoak Pa...yak baditu alternatibak

ikasi, edonola egin dezakezu Matrikula zabalik  
euskara ikasteko baina hobe duzu aek-ra etorri  
**aek**  
Arbidea 21 tf: 94 411 76 56 santutxu@aeknet.net  
Padre Pernet 9 tf: 94 473 14 60



# Begoñako historiako pasarteak euskaraz XIX. mende hasieran

## Begoña eta Euskerea

**ORANGOAN AGIRI BITXI BAT DAKARGU GURE ORRI HAUETARA. XIX. MENDE HASIERAN EUSKARAZ IDATZI ZUEN ABANDOTAR BATEK BILBO ETA BIZKAIKO HISTORIAKO PASARTE BATZUK. TESTUA LABURRA IZAN ARREN, BADU BEGOÑAREN GAINEKO AITAMENIK. GUK HONA EKARRI GURA IZAN DUGU.**

XIX. mendeko lehen herenean, batez ere 1823 eta 1833 urte bitartean, protagonismo handia hartu zuen Abandoko albaitariak Bilbo inguruan. Jose Paulo Ulibarri zen, jatorriz arabarra, Okondokoa, eta zortzi urte zituela Abandora etorria. Ulibarri euskaltzale amorratua zen eta, gainera, gauzak egiteko gogo itzela erakutsi zuen.

Berak bota zuen, esate baterako, euskarazko eskolak sortzeko hazia. 'Ikasolak' deitu zituen eta Bizkaiko Batzar Nagusietan lan egin zuen asmo hori gauzatzeko. Euskara jagoteko akademia ere sortzeko beharrezana ere nabarmendu zuen. Lanbidez albaitari eta perratzaile apala bazen ere, sarritan zorretan sartuta, euskal kulturako izen handiekin harremanetan ibili zen: garai hartako Erro, Mendizabal inprimatzaile tolosarra, Bizenta Mogel, Jose Ignazio Iztueta, Juan Mateo Zabala eta beste asko izan zituen solaskide eta lagun.

1816an euskarazko lehen almanakea argitaratu zuen eta 1824-1833 bitartean Abandon plazaratutako gabon kanten bultzatzaile eta zabaltzaile jardun zuen. Hartu eta bialdu ohi zituen gutunak -euskara hutsez- kopiaitu zituen. Gehienak gorde dira eta horiexek denak Arabako Aldundiak eman zituen argitara 1975 urte aldean. Gutunekin

**DON JOSE PABLO ULIBARRI, MARISCAL VETERINARIO** conocido por sus talentos y acierto en la facultad, vive en Vizcaya en la Ante-Iglesia de San Vicente de Abando, pagante a la villa de Bilbao.

**YOSE PAULO ULIBARRI-CO, ABERE SENDATZALLEEN** yakinena orain munduan ezagutzen dana, bicida Vizcayian Yaun-done Vicente Abando-co Eleix-atétan, Bilbo Uriyaren alboan.

**MONSIEUR JOSEF PABLO ULIBARRI, RECONU PAR** ses talens et sa maniere de travailler, etre Vetrinère et marchal ferren. Son domisille est en Vizcaya dans le vilage Abando, touchan la ville de Bilbao.

Ulibarrik erabiltzen zuen txartela. Beste orrian, bere eskuizkribuak.


barrik. Gehien-gehienek Bizkaiko hiriak erre zirela edo Bilbon uriolak gertatu zirela gogorarazten dizkigute. Lehengo berria, esate baterako, 1335 urtekoa da. Urte hartan Bermeo erre zen eta bertan 'euzkerazko liburu azko' kiskali eta galdu zirela gaineratzen du Ulibarrik. Azken datu horren sinesgarritasuna, ostera, hutsaren hurrengoarena da.

Testu hauek, euren apaltasunean, badaukate euren garrantzia. Batetik, gure inguruetako toki izen batzuk Bilbo eta inguruak euskaldunak zirenean zelan esaten zituzten jakiteko bidea ematen digulako. Bestetik, hain herri historiazalea izanagatik ere, oso urriak dira euskarazko historia testuak. Garai honetantxe idatzi zituen Ulibarriren lagun Jose Ignazio Iztuetak bere historia liburuak, batez ere 'Gipuzkoako kondaira'.

Hona hemen Begoña edo mahatsorrien aitamena dakarten albiste historiko horiek. Batez be Andra Maria uriolak geldiarazten eragingarria zela kontatzen digu. Guk

batera, bertsoak, kontratuak eta historia testu laburrak agertzen dira, beti ere euskaraz, esan legez.


Oraingo honetan gure orriotara ekarriko dugu 'Gomuta edo Oroiza' igaro dan gausa batzuenak Yakiteko' titulu azpian idatzitako zenbait ohar. Testu horretan hainbat albiste historiko batu zituen Uli-



bere horretan utzi ditugu oharrok, berak idatzi bezala, gaur egungo ortografiara egokituta bakarrik. Lehengo zenbakia urtea da eta atzean dator urte horri dagokien gertakizuna labur azalduta.

"1433. Gudukatu zituen Legizamon eta Arborantxakoak Zurbarantarren gain edo kontra. Arborantxakok dira Etxebarrikoak oñazinoak eta Zurbarantxoak Begoñetarrak gaboinko".

"1737. Zemendian egun lehengoan domu donzuen egune, beste uriola bat Bilbon, non bota eban ate asko eta heldu zuen Jaun Done Santien elexako aldaria estaldu artian, eta eruan eban Jaun Done Praizku en zubia. Zoritxarreko urtea. Heldu zuen Andra Mari Begoñeko ekarten bere adiskide bat gaiti. Ze adigarria zelan etorri geure Andra Maria halan beheratu zuen ure. Espabere uri



"1771. Irailan 2. Beste Uriola bat etorririk Zabalbideti eta Iturribideti Begoñeti hondatu eban soto asko goienkalleti, artekalle, eta dendakalle edo estartak".

**Lanbroa**

**ARTESANIA LOIDI**  
Santo Rosario, 1 (Santutxu)  
Tlf.: 94 473 10 65

**ANGEL**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59



Uribarriko neska bik sexurako materiala saltzen dute 'Zu Zeu' dendan

# SEXUA SERIOA BAINA DIBERTIGARRIA ERE



Marta, 'Zu Zeu' dendako arduradunetako bat.

Testua eta Argazkiak: Itxaso Perez

*'Zu Zeu' Alde Zaharreko Zintureria kalean, lehenengo gaztetxea izan zenaren atzeko aldean aurkituko dugu. Ez da ohiko denda bat. Arropa saltzen du, baina ez da arropa denda bat zehatz-mehatz. Berez, atsegin sensueralako osagarriak salgai dauzkate, hau da, neska eta mutilentzako barruko arropa, sexualitate eta masaiaren inguruko liburuak, literatur erotikoa, preserbatiboak eta bestelako osagarri batzuk. Marta eta Zuriñe, Zuriñe eta Marta, Uribarriko bi neska gaztek bazeramaten denboratxoa buruan zebilkien ideiarri irteera eman nahian, baita azkenez lortu ere.*

**Idea berezia zuena. Zelan otu zitzaizuen?**

Langabezian geundenean hortaz pentsatzen hasi ginen, baina ez egoera horretan geundelako hain zuzen, ordurarteko lanetatik aldatzeko baizik. Bizitzan egonkortasuna bilatzearen edo, lanaz aldiro aldatzen bait genuen. Aurrera begira egin dugu. Buruan bueltak ibili ostean, egun batean jarri eta esan genuen, tira ba! Ekingo diogu?

**Eta eman diozuen ikuspuntua nondik abiatu da?**

Gauza batzuk bakoitzak bere aldetik pentsatua zeukan. Sexualitatearena emakumearen ikuspuntutik jorratzea hasiera-hasieratik argi geneukan. Lagun batekin hainbat sex-shopetara joan ginen, zein materiala saltzen den, eta ikusi genuen emakumeok ez garela bertan eroso sentitzen. Emakumeentzako materiala saldu saltzen da baina beti gizonen ikuspegitik. Hortaz, guk bilatu izan duguna emakumearen sensualitatearen inguruan izan daitezkeen arlo denak lantzea: ikusmenaren bitartez (lentzeria, apaingarriak), usaimenaren bitartez...

**Zer nolako gaiak saltzen dituzue?**

Sexua zerbait dibertigarria izan behar dela uste dugu. Txantxak egiteko erabilpena saihestu nahi dugu, dibertigarria den arren gauza serioa delako. Jendeak ikuspuntu hau ondo ulertzen du.

**Zeintzu izan dira orain artean eman dituzuen pausuak?**

Ez da bide erraza izan. Proiekua Bizkaiako Foru Aldundiak duen DEMAn aurkeztu genuen. Hori da proiektu berri eta bitxientzako laguntzak bideratzeko gunea edota erakundea. Hortan baiezkoa eman zitzaigun eta ibiltzen hasi ginen. Zailena lokala bilatzea izan zen. Kokapena nahiko argi geneukan: Alde Zaharrean. Zergatik? Bezero motari begira, biok alde honetan lan egin dugulako eta jende askok ezagutzen gintuelako. Dena txikia eta garestia da hemen, baina azkenean zorte on apur bat eduki genuen. Bilboko beste alde batean ez genuen ikusten aurrera egiteko aukerarik. Prezioez hobe berbarik ez egitea.


**Lentzeria, preserbatiboak... zelakoak dira?**

Lehenengoari dagokionez, jantzi erosak eta era berean politak, gustora sentitzeko. Ohiko dendetan saltzen ez dena bilatzen dugu, gauza berriak, ezberdinak, dibertigarriak, bitxiak. Moda ez da bakarrik kanpoko jantziaren errotan. Barrukoan ere aurrera egiten ari da. Udan udakoa: bainujantziak eta abar. Eta neguan, pijamak, eta ohiko barruko arropak. Esan behar dugu ez dela bakarrik emakumeentzako arropa saltzen. Gizonentzat ere badaukagu.

**Baina bestelako materiala ere badaukazue...**

Preserbatiboak, kolore eta zapore guztietakoak. Baten bat jokurako baliogarria izan daitekeena, hortaz dibertigarri alde hori. Bestaldetik, masaiari buruzko liburuak, literatura... beste hiri batzuetara joan eta mota honetako literatura aurkitzea arrunta da, hemen ordea, ez. Ez dago oraindik merkaturatu sartuta. Gainera, horrelako liburuak beharbada beste leku batean jendeak ez lituzke erosiko, lotsagatik edo, eta honelako denda batean naturaltasunez begiratu eta erosi egiten dira. Gune aproposagoa delako agian.

**Ze jende mota sartzen da?**  
Denetarik. Beno, zaharrak ez horrenbeste, je, je. Emakume askotxo, ama eta alabak batera maiz. Honek batzuetan girotxoa sortzen du denda barruan, gaiaz hitz egiten hasten direnean era naturalean, izan daitekeelako etxean edota beste leku batean gehiago kostatzea eta hemen errazagoa suertatzea. Jende gazte asko informazio bila etortzen da. Arroparen aitzakiaz edo sartu, eta gero, galdetzen hasten dira eta guk, naturaltasunez, behar dituzten azalpen guztiak ematen dizkiegu, ahal den neurrian, jakina. Izotza apurtzen saiatzen gara, baina gehiegi presionatu barik. Badirudi gaztedia orokorrean oso ondo informatuta dagoela, ematen du gizarte hau oso aurreratuta dagoela gai honetaz, baina egunerokotasunak bestelako adierazten digu. Bestaldetik bada bere arazo pertsonalei buruz hitz egitera datorrenik. Denetarik.



Orain gastu hori gehiago finkatu dugu. Hilabete baten edo beste diru apurtxo bat geratzen zaigu bion artean banatzeko, baina asteburu batean edo ateratzeko bakarrik ematen digu. Aurrerago hau aldatzea espero dugu, eta itxaropena daukagu hala izango dela.

**Eta zelan doa? Urte bete pasatxo bete duzue dagoeneko...**

Esaten dute lehendabiziko urtea gogorrena dela, bigarrenean antzekoa eta hirugarrenean egonkortzen dela negozioa. Gu pozik gaude lehenengo honetan. Batez ere gabonak pasa ostean, jende gehiago datorrelako. Batzuek errepikatzen dute eta beste batzuek lagunak dira. Horrek esan nahi du gure iritziz jendeari denda gustatu zaiola eta ondo doala. Horrek suspertzen gaitu. Alaitasuna ere ematen digu. Hasiera gogorra izan zen, jendearen nahiak eta gustuak probatzen eta asma-

zaten ari ginelako. Orduan, gauzak saltzen ginen heinean erosi egiten genuen. Ezin genuen ezer metatua utzi ez genezkelako salduko zen ala ez. Orain, ordea, badakigu gutxi gora behera zer hartu, zenbat eta zein koloretan, zer saltzen den gehien eta zer gutxien. Ikusten genuen lehen sarriago berrituz behar genuela eta orain egonkortzen ari gara ezaugarri batzuen inguruan.

**Asko saltzen duzue, orduan?**


Asko ezin da esan. Oraindik ezin dugu pentsatu hileroko soldata bat eskuratuko dugunik. Irabazten denaz ematen digu gastu arruntei aurre egiteko eta apurtxo bat gehiagorako bakarrik. Gainera, lehen irabazten zena zen gaiak erosteko, denetarik eduki behar genuelako.

**Egun guztiak berdin edo ez?**

Bai zera! Ezin asma gabiltza! Eguraldi ona, ona delako etortzen da edo ez da etortzen jendea. Eguraldia kaskarra denean, berdintsu. Normalean azken orduan azaltzen da, baina hori ere ez da segurua. Hilabetearen arabera ere asko aldatzen da. Igarri egin duguna soldata kobratzen denean da. Orduantxe bai jende gehiago etorri!

**Zelan definituko zenituzkete dendaren ezaugarriak?**

Izenak asko esaten du. Zu zeu izan, guk geuk geure izaerari eusten diogun bezala. Uste dugu gure irudiari eutsi behar diogula, gure izateari. Jakina, horrengatik aukeratu genuen egotea gauden lekuan eta ez Kale Nagusiaren erdian.



**ASAPALA**  
KULTUR ELKARTEA


Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabiltza

**Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!**

Hemen gagoz:  
Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
Tfnoa. : 944735448  
E-posta: asapala@eusnet.org



## Amagoia Aguado mahatsorriak urte bi egin ditu Managuan



Testua: Zuriñe Martínez

Argazkiak: Zuriñe Martínez/Amagoia Aguadok utzitakoak

**M**anaguan lankidetzak proiektuak kudeatzen dihardu, Nazio Batuen zerbitzura, Amagoia Aguado Arrieta santutxutarrak. Hogeita sei urteko gazte horrek Karmelo ikastolan ikasi ondoren Geografia eta Historia lizentziatura lortu zuen. Graduatu ondoko ikasketak nazioarteko harremanei buruz egin zituen eta hortxe sortu zitzaion Managua joateko aukera.

### Nolatan hemen? Zergatik Nikaragua?

Eusko Jaurlaritzak eta EHUtik deitu zidaten ea gura nuen hona etortzea. Nazio Batuekin urte baterako eta gero beste urte bat egoteko posibilitatearekin. EHU jarri zen nirekin kontaktuan. Eusko Jaurlaritzarekin EHUk aukeratu zuen Nikaraguara etortzea. Ia ia urte bi daramat. Printzipioz abendu arte geratzeko asmoa daukat. Hemen beste gauza bat ateratzekotan pentsatuko nuke geratzea edo ez. Ez nago ziur. Urte bi leku batean nahikoa da. Nahiago nuke beste leku batera joatea.

### Hona etorri baino lehen zertan ari zinen?

'Egailan' en egiten nuen lan. Eusko Jaurlaritzako herri balztua da. 'Euroarte'n Europako gaiak ziren guk lantzen genituenak. Formazioa eta enplegua. Oso pozik nengoen. Laneko lagunak hona etortzeko babes handia eman zidaten. Oso oroitzapen onak ditut. Talde majoa zen.

### Managuan zertan zabilta lanean?

Nazio Batuetako PNUDen. Nere saila Garapen Ekonomiko Sustagarria da. Bertan programa arduraduna naiz. Proiektu asko dauzkat. Batez ere emakumeen aldeko programa sorta batekin nabil. Gero beste batzuk ere badaude, Osasun Zerbitzu Publikoa (Nueva Segovia, Jinotega...), Capacidad 21, (Johanesburgorekin erlazioak, hemendik joango diren pertsonen prestaketa,...), ... Eta

## NIKARAGUAN NAZIO BATUEKIN LANEAN

*Nikaragua herrialde mitikoa izan zen 1980 hamarkadan mundu osoko iraultzaile eta aurrerakoientzat. Gero 'kontrairaultza' etorriko zen, hauteskunde bidez hori bai, baina Estatu Batuen zema nabarmenaren azpian. Egun, Nikaragua herrialde pobrea da eta hainbat dira mundu osoko gobernu kanpoko erakundeek (GKE) gauzatzen dituzten proiektuak.*

gero, besteak beste, Rio de Janeiroko bilkuran hartutako konpromisoak Nikaraguan bete diren ala ez ikusten ibiltzen naiz. Dena dela, hemengo lan erritmoa oso desberdina da. Orain ohituta nago baina Euskal Herrian erritmoa askoz ere arinagoa da eta hona etortzerakoan niretzako shock bat izan zen. Hemen lan erritmoa askoz ere astiroago doalako. Hemen oso lasaiak dira. Bizitza beste era batera ikusten dute, haien lehentasunak beste batzuk dira. Lehenengo urtean hori txoke bat izan zen niretzat. Orain ordea ohituta nago, beste erritmo batez egiten dut lan.

### Euskaldun asko dago Managuan eta Nikaraguan?

Nikaraguan asko eta Nazio Batuetan lan egiten asko ere. Eusko Jaurlaritzarekin jende pilo bat etorri gara hona. PNUDen (garapena) zazpi gara, UNICEFen hiru, FAOn (nekazaritza eta elikagaiak) bat, OIMn (migrazioa) beste bat, OPSn (osasuna) bost, FNUAP (populazioa) bi, PNUFIDen (drogamenpekotasunean) bat. Honetaz aparte GKEtan beste hain beste jende dago. Gehien bat udan etortzen dira. Nikaraguan orokorrean lankidetzak asko dago (seguruenik Ertamerikak daukan lankidetzarik gehiena du), eta oraindik nola dago... batzuetan pentsatzen dut ea laguntza ala traba garen...

### Nola ikusten duzu Nikaragua, bertako bizimodua?

Orokorrean ekonomi aldetik Nikaragua oso txarto dago. Eskale piloa dago kaletik. Baina nahiz eta txiroak izan beti daude alai, dantzarako gogoekin, irribarretsu egoten dira. Ez dago erdi mailako klase bat edo oso zaila da aurkitzea; dena daukazu edo ezer ere ez. Ume piloa dago ortozik eskatzen. Beste alde batetik desberdintasun handia dago Pazifikoko aldean bizi direnen eta Atlantikoko bizi direnen artean. Atlantikoko lurraldeak eta jendea bai lankidetzan eta bai gobernuak ahaztuta dauzka. Hango egoera askoz ere latzagoa da. Gainera hango jendea desberdina da, musiki

ka reggae da, dantzak desberdinak dira, gehienek ingelesez hitz egiten dute. Gainera hara iristeko komunikabideak oso txarto daude eta ez da erraza lurretik hara iristea. Orain, Nazio Batuak lurralde zati honetan lan egiten hasi da. Bulegoak zabaltzen ari dira.


Kaleetan kolore pila dago. Jendea kolore biziko arropak erabiltzen ditu, paisaia ere horrelakoa da; Managua zikina da. ez daukate higiegi kulturarik. Baina hori bai, arropa beti garbi erosten dute, gehien bat lanerako, horri garrantzi handia ematen diote. Managua eta Nikaragua kontrasteak dira. Kontraste handiko herrialdea da.

### Hain egoera latzean dagoen herri batean ez da erraza izango lan egitea...

Guk lan handia egiten dugu gobernuarekin. Gobernuak kontra-arteak da. Garrantzitsua da gobernuarekin lan egitea benetako aldaketa on bat lortzeko. Bai jendea eta bai gobernuak inplikatzeko. Batzutan gobernuak aurkitzen ditugu zailtasunak. Guk ezin dugu ezer inposatu, ez gobernuari, ez gizarteari. Beti saiatzen gara gauzak aldatzen euren ikuspegitik ikusita baina gauzak hemen oso astiro doaz.

### Managua ez eze Nikaraguako beste toki batzuk ezagutzeko aukera izan duzu?

Aurreko proiektu batean prekontsulta bat egin genuen 'ESERP' proiektua ezagutzera emateko eta Nikaraguako herri askotan ibili ginen. Gizarteak zer pentsatzen zuen eta beraien proposamenak bildu genituen. Bestaldetik asteburuetan Managutik kanpora irteten saiatzen gara. La Flor hondartza (Pazifikoko hegoaldean). Hara dortokak arrautzak uztera joaten dira abuztu eta irailean. San Juan del Sur ere oso herri eder eta lasaia da, arrantzale herria da. Leon eta Granada ere ezagutu behar dira. Kolonia garaiko herriak dira, lasaiak eta polita. Leonek iraultzan oso pisu handia izan zuen. Masaya, Managutik ordu erdira dagoen herria ederra da. Laku piloa dago, handienak Cocibolca (Nikaragua lakua) eta Xolotlán (Managua lakua) dira. Cocibolca lakuan Ometepe irla dago. Irla



Amagoia Aguado Sandinoren omenezko estatuaren ondoan.

hau munduko laku baten barruan dagoen irlarik handiena da. Nikaragua sumendiz beteta dago eta gehienak lanean ari dira. Guretzat oso exotiko eta erakargarriak dira. Beste kostaldean Bluefields dago eta Corn Island eta Little Corn Island Karibearen.

### Nostalgia daukazu edo eduki duzu hemen hainbeste denbora egoteagatik?

Bai, pasa den urtean gabonak heltzerakoan gogo izugarriak nituen familia eta lagunak ikusteko. Hemen lagun

# EGAILAN S.C.L.

## LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa

## ANDAMIO BARIK

### TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22



Santutxuko poteo gunean



ARROPA ★  
ZILARRA ★  
OPAZIAK ★

Part. Arsuaga SANTUTXU  
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO

bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz





Amagoia Nazio Batuetako idazkari nagusi Kofi Annan jaunarekin.

asko egin ditut baina hutsunea igartzen duzu. Hemengo bazkaria lehenengotan oso desberdina eta exotikoa da baina denbora pasatu ahala, dilistak, bakailaoa, piperrak, indabak eta... faltan sentitzen dituzu. Baina, bestalde, badakit ere, hemengo jendea, egin ditudan lagunak ez ditudala berriro ikusiko. Lakuak, gallopintoa, nakatamalak... jendearen alaitasuna, palo de mayo (dantza oso sexuala)... Nazio Batuetan lan egiten duzunean onartu behar duzu leku askotan egongo zarela eta beti sentituko duzula faltan bai familia bai atzean utzi behar dituzun bizipenak. Euskal Herriko txokoak ere behar ditut, hango itsasoa, giroa. Haien falta igartzen dut.

**Orokorrean, zelan baloratzen duzu zure esperientzia?**

Oso positiboa. Oso hona. Baita pertsonalki ere. Etxetik kanpo hainbeste denbora egonaz asko ikasi dut. Hau guztiz desberdina da. Gogortasuna ematen dizu. Arazoen aurrean bakarrik zaude eta zu zeuk konpondu behar dituzu. Orokorrean oso ondo moldatzen ari naiz eta lagun handiak egin ditut eta faltan botako ditut. Hemengo gauza

sinpleenak ere faltan botako ditut.

**Eta gero zer?**

Gabonetan etxera bueltatuko naiz familia, lagunagaz egoteko eta gero ez dakit zer gertatuko den.

**Nolakoa da zure erlazioa Euskal Herriko jendearekin?**

Euskal Herrikoak oso batuta gaude. Konexio bat dugu. Euskal jaiak antolatzen ditugu, orain ere Marijaia eta Bilboko Aste Nagusia ospatu dugu. Konexio hau ere beste herrialdekoek sentitzen dute. Mantendu nahi dituzu etxe-ko ohiturak. Askotan batzen gara Euskal Herriko janari tipikoak prestatzeko. Gure artean beti euskaraz mintzaten gara.

Hemengoakaz, eurakaz lan egiten dut. Nahiz eta lan kontaktua izan, hemengo jendea zu integratzen saiatzen da. Baita ere, ni bizi naizen auzoan harreman asko egin ditut. Nire auzoa oso 'popularra' (klase herrikoiena) da. Bizilagunekin eta dendariekin harreman estuak ditut. Beste familia bat egin dut hemen. Haien jaietara joaten zarenean ('bacanal') jende ugari ezagutzen duzu. Gainera "chelita" (kanpotarra) izanik asko zuregana hurbiltzen dira.

#### Sandinistak gogoan baina bozka...

"Zaila egiten zait politikaz hitz egitea. Ni kanpoan nago, ni ez naiz hemengo. Herriaren historia garrantzitsua da. Ez dut bizi jendeak bizi izan duena. Ez dakit komentatu ahal izango dudana.


Orain Bolaños da presidentea. Iazko hauteskundeetan sandinistek irabaziko zutela esaten zuten, eta ez zen horrela izan nahiz eta herria sandinista izan edo sentitu. Guda luze bat egon zen eta zerbitzu militarra derrigorrezkoa zen. Askok bizia galdu zuten, eta hau askok negatibotzat jo zuten. Ama askok semeak galdu zituen. Baina gauza on asko egin zuten. Hezkuntza arloan gauza oso positiboak egin ziren, osasunean ere. Orain daudenak baino askoz ere hobetoak. Oraingo agintariak hori ere onartzen dute... Bolaños aurretik Arnaldo Aleman zegoen lehendakari. Gobernu hura oso ustela izan zen. Dirutza handia egin zuten. Orain Bolañosekin jendea hori aldatuko dela pentsatzen du. Itxaroten daude ea zer gertatuko den. Gauzak ondo edo txarto eginda ere, guk beraiekin lan egin behar dugu. Denborarekin ikusiko da. Egoera ez da batere ona. Aurrekontu murrizketa ere egin dute".

## Ibon Arbulu

*"Euskal Herria beste marko batera eramango dugun beldur da Estatua"*

*Santutxuko gazte hori sarritan ibili da gure jai herrikoietan soinu hartuta batera eta bestera giro alaietan. Euskaltzale peto-petoa, euskararen aldeko herri mugimenduetan murgildu zen eta 'Bilbo Euskalduntzen' koordinadorearen eledun gisa aritu zen. Geroago HBko zinegotzi izan zen Bilbon lau urtez, Mahai Nazionalerako hautatu zuten arte. Baltasar Garzónnek 'legez kanpo' utzi duen Batasunako Mahai Nazionalerako kidea ere dugu Ibon Arbulu.*

Testua: *Hektor Ortega*  
Argazkiak: *Iñigo Azkona*



bertin

Kupoi hau Santutxuko AEKn (Arbidea 21) aurkeztzen duenari BI EUROKO DESKONTUA egingo zaio 'Euskara Mendian' liburua erosterakoan.

BERAZ, 5 EUROTAN SALDUKO ZAIO.



**Hasi, euskalgintzan hasi zinen zu herri mugimenduan ezta?**

Bai. Unibertsitatean hasi nintzen euskararen aldeko normalkuntza talde batean. Euskal Herrian Euskarazen (EHE) ere ibili nintzen eta 'Bilbo Euskalduntzen' en sorreran parte hartu nuen.

**'Bilbo Euskalduntzen' oso mugimendu erreferentziala izan zen 90. hamarkadaren hasieran...**

Nahiko esperientzia aberasgarria eta polita izan zen. Eragingarria ere bai, baina pena da oso denbora gutxi iraun zuela. Helburua eta zeregina modu txukunean planteatu zuen: Bilbon aspalditik ikusten zen beharizana bazela, euskaltzaleak egon bai baina sakabanatuta zeudelako... Elkar-teak eta jendea bazebiltzan hainbat arlotan lanean baina faltan igartzen zen jende guzti hori topagune batean biltzea. Egia esan, apostua egin zen eta koordinadora gisa jaio zen 'Bilbo Euskalduntzen'. Eremutan banatu genuen eta eremu bakoitzean ziharduen jendeak kanpainak pentsatu eta egin zituzten. Sasoi hartan Bilboko Udalarekin elkarlanean aritu ginen hainbatetan.

**Izan ere, orduan sortu berria zen Bilboko Udalaren Euskara Zerbitzua...**

Bai. 'Bilbo Euskalduntzen' 1990-91 urteetan izan zen. Eta Euskara Zerbitzuarekin hainbat eta hainbat kanpaina aurrera atera genituen. Esperientzia polita izan zen, oso, baina laburra. Pena da hola-ko iniziatiba batek behar zuen babes politikoa faltatu zitzaiola. Egia osoa esanda hura ez zen inongo panazea, esperientzia konkretu bat baino. Azierituak eta akatsak zituen.

**Geroago etorri zitzaizun HBko udal zerrendetan sartzea eta Bilboko Udaleko zinegotzi hautatua izatea...**

Hala da. 1995eko udal hauteskundeak baino lehen HB inguruan nenbilen lanean eta gero zinegotzi atera nintzen...


**Zelako urteak izan ziren zinegotzi urteak?**

Egia esan, nahiko garai gogorak izan ziren. Une latzak, benetan. Eta gainera, HB aurreko agintaldian lau zinegotzi izatetik gurean bi baino ez izatera pasa zen. Nik ez neukan eskarmenturik halakoetan eta gainera koiuntura latzean tokatu zitzaidan. Zentzu horretan esperientzia polita izan zela uste dut baina atzera begira hainbat eta hainbat une lazgarri bizi nituela konturatzen naiz.

**Une gogor haietarik batzuk Mahai Nazionalaren kartzelaratzearrekin lotuta egongo ziren...**

Bai. Zinegotzi nintzela hasi zen prozesamendu guzti hura. Eta haren ondorioz Mahai Nazional berria osatu zen eta niri egokitu zitzaidan tartean egotea.

**Zinegotzi garaietako oroitzapen bereziren bat?**



Bai. Esate baterako, nirekin batera zinegotzi Sebas Prieto, Otxarkoagako preso, egon zen. Bilboko Udaleko pleno aretoan elkarrekin egoteko aukera eduki genuen.

**Mahai Nazionalaren kartzelaratzeko garai hura latza izan zen. Hala ere, oso denbora gutxian une gogor haietatik Lizarra-Garaziko egun samurretara pasa zen. Zuk Mahai Nazionaletik ikusi zenuen...**

Aldaketa hori oso hilabete gutxian bisualizatu zen baina sakoneko arrazoiak aspalditik zetozen. Sarritan esan ohi dugu: Lizarra-Garazi ez zen sortu egun batetik bestera, une latzez beteriko urteetako bilakaeraren ondorioz baizik. Aldaketa oso handia izan zen eta tentsiozko une haiek aspaldian gertatu zirela ematen zuen...

**Apurtutako zubi asko di-da batean konpondu ziren...**

Dena dela, nik esan dezaket Bilboko Udalaren kasuan, bertako agintari politikoen partez ez zela ikusten borondate handirik aurrera begira zubiak eraikitzeke. Denborak

horrela frogatu du gero. Baina oro har aldaketa itzela izan zen, bai.

**Lizarra-Garaziko garaian sarritan ibiltzen zineten EAJko batzuk eta HBko batzuk harremanetan. Orduko konfiantza hark oraindik ere dirau ala zeharo zapuztu da?**

Harreman pertsonalak eta harreman politikoak beti bereiztu behar dira. Euskal Herriko bazter askotan hobekuntza egon zen baina, lehen esan bezala, Bilbon ez zen horrelako harreman erraz eta konfiantzazkoa sortu.

**Lizarra-Garaziko esperientzia amaitu zen baina oraindik ere gurean jende askok ez du ulertzen zer gertatu zen. Zer esango zenieke?**

Lehenik eta behin, denborak arduratzen bakoitzea bere tokian jartzen duela. Azken finean, Lizarra-Garaziko prozesua zabaldu bazen izan zen konpromiso politiko sakonak adostu zirelako, herri honek behin betiko beste marko juri-

diko-politiko baterunzko bidea har zezan. Lau urte pasatu dira eta denborak esan digu batzuen konpromisoa ez zela ez benetakoa ez sakona. Abertzalea dena abertzalea da hemen eta Hong-Kongen. Gaur ikusten dugu batzuek ez dutela marko berri baterako bidea hasi nahi, egun eroso bizi direla gaurko markoan... Orduan zertarako hartu zuten marko berri bat eraikitzeke konpromisoa? Norbaitek gezurra esan zuen.

**Batasuna prozesuaren ondoren Mahai Nazional berria hautatu zen eta zu ere tartean zeunden. Aldaketa zegoen lehengo HBtik geroagoko Batasunera?**


Sakoneko hausnarketa egin zen. Herri honek hautu bat egin behar du Euskal Herriko marko berri bat eraikitzeke. Aldaketa politikoa premiazkoa da. Eta horretarako ikusten genuen gure herriak bitarteko politiko instituzionala eragingarria behar zuela aldaketa hori egiteke. Beste kontu bat da Batasuna prozesuan pertsona batzuk ez zirela apostu horretan sartu. Une bitxiak bizi izan genituen, egia da. Orain euren batzuk behin-betiko beste aukera politiko bat bideratzen dute eta beste batzuk, Batasuna prozesuan dudamudan egon zirenak, gaur ere Batasunaren baitan edo inguruan lanean ikusten ditugu.

**Batasuna sortu eta handik gutxira ilegalizazio hotsak entzun ziren. Gaurko perspektibarekin, gauzatzen hasia denean, zelan ikusten duzu ilegalizazio prozesua?**

Alde batetik ezker abertzaleak bete-betean asmatu duela estrategia politikoa. Azken finean bizi garen eraso ez da eraso koiunturala, ez da kapritxoa, ez da alderdi edo sigla batzuen guraria. Azken batean Estatu baten strategi orokor baten urratsak dira. Hain zuzen, 1997an Mahai Nazionala kartzelara bidali zutenean ez zen izan bideo bat zabaltzeagatik. Estatuaren apostu definitibo

baten lehenengo urratsa zen. Eta 1997tik hona ikusi dugu zelan ilegalizatu diren, kriminalizatu diren, kartzelaratu diren hainbat militante eta erakunde. Orain Batasunarekin ikusten duguna pastel horretako azken ginda da. Zergatik? Azken finean eurek badakitelako hemen proiektu politiko bat dagoela, proiektu politiko sendo horrek jende sendoa duela, bihotza bero baina burua hotz duela eta kapaza izango dela Euskal Herria beste marko juridiko-politiko batera eramateko. Eta horren beldur dira. Prozesu horren motore izan behar duen Batasuna desagerrarazi behar dute mapa politikotik. Aurrera begira? Kareta guztiak lurrera jausi dira. Hemen ez dago anbiguitaterako tokirik. Euskal Herriak ondotxo daki orain zein den zein eta norantz doan. Perspektiba? Sufirimendua eta nazio eraikuntza oztopatzen duen marko juridiko-politiko luzeago egonkortu ala behin betiko Euskal Herriko abertzale eta aurrekoiak kapazak izan aliantza bat osatzeko Euskal Herria marko berri batera eramateko. Bata ala bestea. Ez dago tarteko biderik.






batzuek, erdian egon nahi dutenek, gura duten legez. Bi baino ez. Bata Espainiako legeak betearazten dituen eta bestea herri honen etorkizuna askatasunean erabaki nahi dutenena.

**Zein izango da ezker abertzalearen etorkizun hurbi-la?**

Argi dago ezker abertzaleak etsai politiko asko dituela eta berau desagerrarazteko estrategia martxan dagoela. Baina estrategia horren helburua ez



**Jende askoren iritziz zuk diozun aliantza horretarako ETaren jardun armatua oztopo gairdiezina da...**

ETaren komunikatuetan irakurri dut eurak ez direla sekula oztopo izango herri honek askatasunerako bidean urrats bat emateko. Hamazortzi hilabetez, suetena egin zuen bitartean, prozesua abiatu zen eskenatoki hori gauzatzeko. Hori ikusita eta ETak berak zer dioten ikusita, nik uste dut borondatea hor dagoela...

**Areatzako egoitzan kateatuta ikusi zintugun. Une latzak izango ziren, noski...**

Bai. Momentu gogorak fisikoki pasatutakoagatik baino barrutik pasatutakoagatik. Estatu espainolaren erabaki faxista bat betearazteko teoriar bertako herritarren diren poliziak etortzea... Burura etortzen zitzaidan gure aurreko belaunaldikoek burua altxatuko balute zer esango zuten horren aurrean. Eli Gallastegi zenak esaten zuena...

**Irailaren 14ko manifestazioan ere egon zinen. Jende askorentzat astindu latza izan zen...**

Erabaki faxista bat bertako batzuen eskutik gauzatzen ikusi dugu. Atzo Xabier Amurizak esan zuen legez, irailaren 14ko manifestazioaren aurrean ez zeuden hiru alderdi,

da ezker abertzalea, Euskal Herria baizik. Ezker abertzaleak erantzun egingo du baina eraiki egingo du. Kontua ez da ezker abertzaleak erantzutea eta eraikitzea, baizik eta Euskal Herriak erantzutea eta eraikitzea. Hurrengo asteetan eta hilabeteetan gure lana hori izango da.

### BEDERATZI GALDERA LABUR

**Abesti bat:** 'Lili bat ikusi dut'.

**Zaletasun bat:** Benetakoa? Parranda egitea.

**Akordeoiarekin ala gabe?:** Soinuarekin, jakina.

**Liburu bat:** Orain 'Lur bat haratago' liburuarekin ari naiz borrokatzen.

**Pelikula bat:** 'Tiempos modernos',

Charles Chaplinena.

**Leku bat:** Getari (Lapurdi).

**Janari bat:** Marmitakoa.

**Hondartza ala mendia?:** Mendia.

**Amets bat:** Egoera latz honen ondorioz egoera txarrean dauden guztiak Euskal Herrian libre egotea.

## Oporren ostean depresiorik etortzen zaizu?




**RUTH ETA JOSUNE (SANTUTXU)**

**BAI. ESKOLARA BUELTATZEA GOGOR-GOGORRA EGITEN ZAIGU!**


**ITSASO (SANTUTXU)**

**BESTE BARIK, OPORRAK AMAITU DIRELA ONARTZEN DUT.**



**RUTH ETA JOSUNE (SANTUTXU)**

**BAI. ESKOLARA BUELTATZEA GOGOR-GOGORRA EGITEN ZAIGU!**




**MERTXE (SANTUTXU)**

**LANERA ITZULI BEHAR DUZULA PENTSATU BEHAR DUZU BETI. ESKERRAK BUELTA NAITEKEEN!**



**GORKA (SANTUTXU)**

**HORRETARAKO OPORRAK EDUKI BEHAR!**



**MANU (SANTUTXU)**

**BAI. 'ERRUTINARA' BUELTATZEA ZAILA IZATEN DA.**



**ELENA (SANTUTXU)**

**EZ. ERREALitatea HORRELAKOA DA ETA HORRELAXE HARTU BEHAR DUZU.**



**DANI (BEGOÑA)**

**BAI ZERA! ORAINXE OPORRETAN NAGO ETA!**



Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## Justuegune, urterik urte indartsuago Mahatsorrion jaiak azken urteetako edizio jendetsuena egin du aurten

*Abuztuaren lehenengo zapatua, urtero lez, Justuegune ospatzeko eguna izan zen gurean. Arbolantxan lehenengo eta Iturritxualden -Tetuane landan- gero, giro polita eta nahikoa euskaldun sortu zen*

*antzinako erromerien estiloan. PaYa konpartsakoen beharrari esker jai hori gero eta zoliago dabil. Aurten, atera kontuak, azken urteotako erromeria jendetsuena izan da.*

Azken urteotan zenbat Justuegune ospatu diren esaterakoan zalantza asko sortzen zaigu: 6, 8, 9, 7... ados ipintzea zaila izaten da. Eskerrak Josu hor dagoen, gauzak argitze-ko prest! Zortzi dira dagoeneko, lehenengoan meza ez dakit nongo apaiza etorri zitzaigulako, hurrengo bi urteetan bestea, gero hiru urtez segidan lehenengo eta amaitzeko... Hau da hau! Mezak eman dituzten apaizak aintzat hartuz badakigu bi urte besterik ez dela falta hamargarren urteurrena ospatzeko. Zortzi eta gorantz jaiak. Aurtengoa jendetsuena izan da. Eguraldiaren beldur ibili ziren antolatzailerak, aurtengo uda ez baita izan, hain justu, berotsu eta eguzkitsuena. Hala ere, eguna ezin hobea esnatu zen, eta halakoxea izan zen ere jendearen erantzuna. Urtero lez lehenengo meza Arbolantxako Goikoetxe baserriaren atarian, eta ostean, txokolatada eta erromeria, eskusoinu, pandero eta kaskainetaren soinuaz alaituta egon zen. Mahatserrio soari jakinarazteko, bolanderak aireratu zituzten.



Goikoetxe aurreko 'plazan' dantzari abila azaldu ziren.

Iturritxualde (Avril) mendira igo eta pote batzuk hartu eta gero, baserrian zegoen jendea eta "orkestra" igo zen, eguerdia alaituz bertsolarien zain geunden bitartean. Ez ziren berandutu Jon Maia, Fredy Paya eta Sus-trai Colina. Joxin Iturritzek gidatuta bertso jatorrak utzi zizkiguten. Ikuslegoa adi-adi zegoen Pa Yakoek bazkaria prestatzen zuten bitartean. Zer bazkaldu genuen? Entsalada, marmitakoa eta sandia. Postrerako kafea, patxarana eta musa. Ez txokolatetza ez, hordagokakoa. Lehia gogorra eta luzea hainbat bikoteen artean.

ko "tira-birak" agerian utzi zuen. Ostean, txinga-eroate dema, zeinean maila urterik urte igoz doan nabarmen. Beno, txantxa txiki bat besterik ez da, baina aldizkari honetakook hasi gara pentsatzen ea ez litzateke doping kontrola egin behar hain proba garrantzitsuan. Iluntzean dantzaldia Arizgoiti bandakoekin. Giro bikaina sorrarazi zuten gaueko ordu txikietara arte, ohitura ez galtzearen. Buruhandiren batek orduantxe hartu ahal izan zuen atsedean, baina urte bat berehala igarotzen da, Beraz, hurrengorako zoazte indarrak prestatzen!

Eskoba eta tute txapelketak noizko?

### UMEENTZAKO HERRI JOKUAK ERE

Herri jokoen ordua iritsi zenerako Tetuane landa jendez beteta zegoen berriro, baita zeharo animatuta ere. Urteroko sokatira txapelketak, aurten txiki-kientzat ere egin dena, mahatserriko auzoen arte-

## Mallonako futbol zelaian aldagela berriak jarri dituzte

Belar artifizialezko zelaiaren ondoan daude eraikin berri batean

*Mallonakoak futbol zelai erreferentziala izateko bidean beste urrats bat egin du oraintsu. Aldagela eraikin berria altxatu du Bilboko*

*Udalak bertan ibiltzen diren kirolariak erabil dezaten. Horretarako 560.000 euro gastatu du eta urtebete eman du obrak egin bitartean.*

Mallonako eraikin berriak 304 metro karratu dauzka erabilgarri. Guztira bost aldagela egokitu dituzte belar artifizialezko zelaiaren eta arezko zelaiaren artean. Horietatik lau futbolarietzat gordeko dituzte eta bosgarrena partiduak zuzenduko dituzten epaileen esku jarriko da.

Hala ere, eraikin berriak bere baitan aldagelak baino gehiago gordetzen ditu. Bestelako zerbitzuak ere bertan edukiko dute euren txokoa. Esate baterako, biltegiak atondu dituzte, baita publikoarentzako komunak eta makina zein garbigailuentzako gelak.

Behin aldagelak amaituta, Mallonako futbol zelai txukuna dela esan genezake. Batetik, belar artifizialezko zelaia eraiki dutelako -sistema berriaz egina, futboleantzeko akos ere egokia- eta bestetik inguruetako instalazioetan hobekuntza nabarmenak egin dituztelako.

### INBERTSIOA

Guztira, Mallonako futbol instalazioen zaharberriak 1.081.000 euro baino gehiago eskatu dio Bilboko Udalari. Aurten, hobekuntzetan eta material horniketetan bakarrik, 7.600 euro sartu du Iñaki Azkunaren gobernu-taldeak.




Inbertsiorik lodienak aldageletako eraikin berriak - 560.000 euro, esan dugun legez- eta belar artifizialezko zelaiak eraman dituzte. Azken hori egiteko lanek 400.000 euro eskatu zuten.

Mallonako futbol zelaia hainbat futbol talde eta ehunka gazte ibiltzen da kirolean. Besteak beste, Begoña, Santutxu eta Danok Bat futbol taldeetako ekipoak aritzen dira bertan. Guztira, gazte pilo batek erabiltzen ditu Mallonako kirol instalazioak.

### Badabil Bolueta eta Atxuri arteko tren.

Irailean jarri da atzera ere indarrean Eusko Trenaren Bolueta eta Atxuri arteko tren bidea. Uda partean bi geltokion arteko jarduna etena egon da Atxuri aldean egokitze lanak egin ahal izateko. Ondorioz, Boluetagino zetozenak bertan jaitsi eta metroa hartu behar zuten.





# Otxarkoagan zaharrentzako eguneko zentroa egingo dute

## Urtebete barru zabaldu behar ditu bere ateak Kepa Enbeita plazan

Otxarkoagak zaharrentzako eguneko zentroa edukiko du erabilgarri datorren urtean. Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilbao Biz-

kaia Kutxa (BBK) ados jarri dira 50 lagunentzako zentro bat egiteko auzo horren bihotzean, Kepa Enbeita plazan hain zuzen.

Bilboko alkate Iñaki Azkunak jakinarazi duenez, Bilboko beste bazter batzuetan ere horrelako ekipamendu gehiago egingo dira. Besteak beste, Txurdinagan bertan ehun pertsona hartzeko moduko zentro bat egin nahi dute. Txurdinagako egiteko lanak esleitura daude, honez gero.

Otxarkoagako zentro berriak 870 metro karratuko azalera edukiko du. Bere berrogeita hamar plaza bi arlotan banatuko dira: integrazioa batetik eta psikogeriatrikoa bestetik. Guztira 811.368 euro gastatuko dituzte etxe berria atontzeko eta, asmok garaiz betez gero, urtebete barru amaituta egongo da.

Akordioa irailaren 19an lortu zuten Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK), Bilboko Udaleko eta Bizkaiko Foru Aldundiko arduradun nagusiek. Bilbao Bizkaia Kutxak Kepa Enbeita plazan daukan lokal bateko solairu oso bat lagako du zentroa bertan atontzeko. Gainera, 450.760 euro emango du egokitze lanak egiteko eta ekipoa zein mobiliarioa erosteko.

Bere aldetik, Bilboko Udalak 300.506 euro emango ditu proiektua aurrera atera dadin. Eta Diputazioak, azkenik, bere gain hartuko ditu lokala egokitzeko obraren kostua. Horretarako 60.000 euro beharko dela uste dute.

### DIPUTAZIOAK EUTSI

Gainera, are garrantzitsuagoa, Diputazioak zerbitzua man-



tentzeko ardura hartuko du. Horrek urtean 300.000 euro eskatuko du. Kudeaketa lehiaketa publiko baten bidez esleituko da. Gizartekintzako diputatu Ricardo Antsoategik esan duen legez, "horrelako zentroekin erantzun egokia emango diogu Bilbon gaur egun dagoen eskaerari".

Izan ere, zentro guzti hauen berezitasun nabarmenena unitate psikogeriatrikoa edukitzea da. Horren eskaera handia ei dago eta orain arte ez da behar den moduko erantzuna eman ahal izan.

### Otxarkoagako auzoetxea berrizatu dute



Otxarkoagako auzo-etxea Bilboko zaharrena da. Azken hilabeteetan Bilboko Udalak berrizatzeko lanak egin ditu bertan aurpegia garbitzeko eta lokala gaur egungo beharriaz hobeto egokitzeko. Otxarkoagako auzotarren zerbitzura dago, berriz ere erabilgarri.

**Garraioak**

Deitu:  
Jabi: 607 43 17 91  
Txema: 607 19 68 33

**Sugea taberna**

Iturriaga, 92      Santutxu

**BASTERTXU**

**TABERNA**  
Ricardo Bastida plaza

# Kexak Begoñan pertsona batzuek aparkalekuan 'bizi' direlako

## Auzokoek batzarrak egin dituzte eta kartelak jarri dituzte kaleetan

Etxebarría parkearen ondoko aparkalekuak hainbat lagun 'bizi' direlako ezinegona zabaldu da Begoñan. Bertako bizilagunek batzarrak egin dituzte, baita kartelak jarri ere, egoera hori salatzeko eta garbitasun, segurtasun eta duintasun arazoak dakartzala jakinarazteko.

Azken hilabeteetan Etxebarria parkearen ondoko aparkalekuan jendea 'bizi' da. Autoa bertan aparkatzen dute eta 'etxe'tzat hartzen dute. Bertan egiten dute lo, bertan elkartzen dira beste lagunekin, bertan egiten dute bizi-modua.

Horrek arazoak eragin ditu segituan eta inguruotako auzoak kexuka hasi dira. Euren arrazoi nagusia da hori ez dela inor bizitzeko tokia. 'Kotxeetan' ezin dela bizi. Jakina, horrelako bizimodu batek berehala dakartza ondorio txarrak guztientzat. Horrela bizi direnentzat eta ingurukoentzat. Higiene falta, zarak gaueko ordu txikietan, ... kezka zabaldu da.

Kontuan hartu behar da, gainera, aparkalekua Etxebarria parkearen ondo-ondoan dagoela. Beraz, alderdi horretatik jende asko ibili ohi da, kasu askotan ume txikiak direla. Izan ere, aparkalekutik hur haurrentzako eta gazteentzako jolasgunea dago.

### KARTELAK

Udan batzarrak egin zituzten inguruotako etxeetako bizilagunak. Kartelak jarri ere egin zituzten auzoan eta aparkaleku aldean bertako egoera salatzeko eta bertan 'bizi' direnek bertatik alde egin dezaten eskatzeko.

Jakina, inguruotan auto aparkatuetan bizi izan direnak diru bako etorkinak izan ohi dira. Pisu bat hartze-



ko adina sos eduki ez eta ibilgailuetan egiten dute euren bizimodua.

Bilboko beste bazter batzuetan ere antzeko arazoak sortu dira azkenaldion. Deustuan, esate baterako, errumaniar jatorriko famili batek hainbat egun eman zuten Sarrrikoko parke inguruan lehenengo eta Ibarrekolandako aparkalekuan gero.

**SANTVTXY SPORT**

BERRIKARRIAK

BERRIKARRIAK



Mahatserrian lehen hezkuntzako hogeita hiru eskola daude

## IRAILEAN BEDERATZIEHUN UME BERRI SARTU DIRA GURE ESKOLETAN



Txurdinagako eskolako inauteriak.

**Irailaren 9an hasi zen gure eskola gehienetan ikasturte berria. Egun horretan bederatziehun eta hogeita hiru ume berri ziren Mahatserriko ikastetxeetan derrigorrezko hezkuntza. Euretarik asko aurretik eskoletan edo haurtzaindegietan ibilitakoak badira ere, denontzat irailaren 9koa kontu berria izan zen. Gutxienez hamasei urte bete arte egongo dira hezkuntza sistemarekin lotuta. Bederatzi ume horiek Mahatserriko hogeita hiru eskoletan banatuta daude. Publiko zein pribatu, erlijiosu zein laiko, euskaldun eta erdaldun, ikastetxeek euren nortasun propioa daukate.**

Testua: Luis Albarez / Argazkia: BERTON

**B**ederatziehun eta hogeita hiru ume berri horiek aurreko urteetako kopuruak apur bat altxatu dituzte. Izan ere, jaiotza datuak apurtxo bat igo direla ematen du, aldaketa handirik jo ez badute ere. Guztira, Bilbo osoan 2.480 ume dira aurten hiru urteko geletan hasiberriak.

Gurean irakaskuntza pribatuak eraman ditu haur berri gehienak. Bostehunen bat dira hezkuntza pribatuaren bidez abiatutakoak. Euretarik gehienak Txurdinaga aldeko zentroetara joan dira. Izan ere, ez da harrizkoa bertan baita-

de euren itzala Bilbo osora zabaltzen duten ikastetxeak. Kirikiño edo Begoñazpi ikastolek, esate baterako, 70na matrikula berri eduki dezakete urtero. Kirikiñoek, bide batez esan dezagun, lehenengo 25 urteak beteko dituzte aurten. Ikasturte berezia izango da, duda barik, Txurdinagako ikastola horretako ikasle, irakasle, langile eta gurasoentzat.

Guztira, hamaika dira gure bazterretako ikastetxe pribatuak. Aipatu ikastolekin batera Abusu ikastola ere (Pontioian, Bolueta eta Abusu artean) gure eremuan dago. Beste ikaste-

txe pribatu asko erlijiosuak dira. Hor daude, esate baterako, Angeles Custodios, El Salvador, Veracruz eta Hijas de la Caridad, besteak beste. Berriotxo San-tuxun dago eta B zein D ereduak eskaintzen ditu.

Badira, hala ere, bestelako zentroak gurean. Artxandan, esate baterako, Trueba kooperatiba dago. Eta Txurdinagan, ikastetxe alemaniarra. Zentro honek 35 aurrematrikula eduki zituen otsailean eta berau da Bilboko ikastetxe bakarra X ereduakoa. Hau da, gaztelaniaz edo euskaraz egin beharrean, irakaskuntza beste hizkuntza batez egiten da, kasu honetan, jakina, alemanez.

### IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

Sare publikoari dagokionez, hamabi dira ikastetxe mahatserriok. Uribarri eskola, Epaltzaren alarguna (Tiboli), Zurbaran eskola, Zurbaranbarri eskola, Artatse, Francisco de Goya-Otxarkoaga, Lope de Vega, Pío Baroja, Txurdinaga eskola, Mina del Morro eskola, Luis Briñas-Santuxu eta Karmelo ikastola. Azken biak, Karmelo ikastola eta Luis Briñas



Kirikiño ikastola kiroldegia egiten ari da.

Azkenaldion zer esan handiena ematen duena Karmelo ikastola da. Izan ere, Santuxuko ikastetxe horrek lokal berriak behar ditu eta ikastolako guraso zein langileek eta Santuxuko hainbat taldeek auzoan bertan egon behar direla pentsatzen dute. Horregatik, Hermitas de los Pobresen ondoko orubea eskatzen dute. Bilboko Udalak, ostera, Mina del Morro proposatzen du eta Hezkuntza sailak, azkenik, Solokoetxe-ko lokalak zaharberri gura ditu ikastola bertan egon dadin. Datozen asteetan pil-pil egongo da kontu hori, duda barik.

### HIZKUNTZA

Hizkuntza ereduaren gaineko datuak, bestalde, ezagunak dira BERTONeko irakurlearentzat. Mahatserriko hiru urteko ume gehienek -469 ume, %50 baino gehiago- D ereduaren ikasiko dute aurten. Euskara hutsez, beraz. Euskaraz eta erdaraz arituko dira 355 ume, ume mahatserrien %40 alegia. Horiexek, esan legez, B ereduaren.

Erdal ereduaren, azkenik, 95 ume sartu da aurten. A ereduaren -gaztelania hutsez eta euskara jakingaitzat- baino ez- gainbehera nabarmenean abailtzen ari da. 60 haur lortu ditu. Beste 35ak, azkenik, arestian aipatu ikastetxe alemaniarrek bereganatu ditu.

Bilbo osoko datuetara joz gero, euskara hutsezko irakaskuntza gailentzen da kasu honetan ere. 1.100 ume (%43.7) D ereduaren sartu da. Atzetik B eredu elebiduna dator (1.070 haur, %42.5). Oso atzean, ostera, A eredu erdalduna gelditu da. 310 ume hasi behar ziren eskola erdaldunetan Bilbon, haur guztien %12 baino ez.



Begoñazpiko ikastolako umeak iaz santa eskea kantatzen.

alegia, izan dira azken urteotan, Txurdinaga eskolarekin batera, sare publikoan matrikula gehien batu dituztenak.

Guztira 400en bat hiru urteko ume dira hiru barrutietan (Uribarri, Txurdinaga-Otxarkoaga eta Begoña) eskola publikoan ikasiko dutenak. Hemen ere badira euren nortasuna behin eta berriz erakusten duten eskolak. Batzuek hizkuntza ereduari zor diote, beste batzuek historiari eta badira ere giza talde baztertuak integratzeko ahaleginean nabarmendu direnak.

ZUBEROTARREKIN BAT  
Helburua: 1.000.000 €

# AUZOLANEAN

deitu orain: 902 33 88 66  
05 59 46 13 89

**Xiberroa**  
garatzen! egitasmoa



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**bertan**

Justuegune, Euskalgune  
Aitziber Iurria  
Iduna Taldea  
Urtzi Urrutikoetxea  
"Mugitzen bidean, mugitzen ditudun komitatekoak"  
Uztidatu herriaren berria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**bertan**

Miren Agur Meabe  
"Euskal literaturaren aniztasuna eta marra altua dago"

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**bertan**


Eladio Morfiet, Ouzarkoagako abesbatzaren zuzendaria

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**bertan**

Mikel Alvarez, nabatsorri bat Everesteko tontorrean

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA  
**bertan**

Imanol Agirre  
"Egutzi nazionala izapela janzteko esperantzak"



# MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

## hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....

Abizenak: .....

Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....

Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....

Telefonoa: .....

Bankua: .....

Kontu zenbakia (20 digitu): .....

**DOHAIN**

**DOHAIN**

Sinadura


## BEDARTZANDI (699 m.) eta URREGARAI (704 m.)

Zornotzatik Gernikara bidean Zugaztiara helztean bidegurutze bat dago. Eskumarantz Markinako bidea hartuko dugu eta Bizkaiko Begiratokia pasatuz Munitibar herrira iritsiko gara. Han Lekeitiorako bidea hartu eta laster Aulestira sartuko gara.

Aulestira ailegatzean eskuinalderantz abiatuz Markinako errepidea hartuko dugu. Handik hiruzpalau kilometrora Lekoitx mendate gainean geldituko gara. Santa Eufemirantz abiatzeko ikurra ikusiko dugu, baita harrobia ere (A). Apur bat hurbilduez gero harrobia gaur egun erabiltzen ez dela konturatuko gara. Tresneria herdoilduta eta zaharkituta dago. Autoz joan ginen haraino.

Handik aurrera bide ona dugu gure ibilbidean eta hogeit hamar gutxi gorabehera lepo zabal batean egongo gara (B). Tokia ondo prestatuta dago jaiak edo udako egunak igarotzeko. Bertan iturria, bolatoki berria eta luzea, taberna jatetxea eta inguruan erretegiak eta mahaia daude. Bizkaiko Foru Aldundiak atondutako Igotz-Santa Eufemia atsedenekua da.

Bi mendi tontor ditugu inguruan. Ezkerraldean Bedartzandi mendi harritsua eta eskuinaldean Urregarai edo Igotz mendia (eta gailurrean Santa Eufemia basiliza). Gauden tokitik Bedartzandi mendira hogeit hamar inguru dago. Toki horrextatik Urregarai mendira 15 minutu beharko dugu eta azken zatian 222 mailadun eskailera igo beharko dugu ermitaraino heltzeko. Handik tontorrera beste ordu laurden.



**IAKINGARRIAK**

Iraupena: Tontor biak eginez gero, ordu bi eta erdi.

Altuera: Bedartzandi (699 m) Urregarai edo Igotz (704 m)

Oharra: Baseliza horretan Santa Eufemia egunean erromeria ederra ospatzen dute Aulesti eta Markina-koek. Aipatzekoa da mendi honen kobazulo batean Tartalo izaki mitologikoa bizi zela. Begi bakarra zen eta gizakiak jaten zituen harik eta gizon batek behin kobazulotik irteteko itsutu zuen arte.



## HEKTOR SERNA:

**"JENDE GEHIENA TELEBISTAN EDO IRRATIETAN JARTZEN DUTEN MUSIKAREKIN KONFORMATZEN DA"**

BOLUETAKO GAZTE HORI DISKO-JARTZAILE ARITZEN DA ZALLAKO KAFE ANTZOKI BATEAN

*DJ HE izenarekin ezagutzen dute Boluetako Hektor Serna. Djaren arrakasta, gustua, estiloa, teknika eta irudimena bat egitean datzala diosku. Hogeita zazpi urteko mahatsorriak Zallako "Oreka Kafe Antzokia" tabernan lan egiten du asteburuetan estilo askotako musika pintxatzen. Batez ere, musika elektronikoa, rockanrola eta musika beltza ditu gustukoen eta jendea musika berriak entzutea animatzen du, ez gaitetzen betiko musika komertzialarekin gera.*

Testua: Arrate Diaz / Argazkia: BERTON

### Zelan hasi zinen DJ munduan?

Lehen urratsak etxean eman nituen musikarekin probak egiten. Musika bilduma bat hasi nintzen egiten eta berehala jaialdietan lagunentzat musika jartzen hasi nintzen. Zortzi-hamar urte daroadaz musika jartzen, hamasei urterekin edo hasi nintzen. Nire lehen musika emanaldia Bilboko Ilbeltz tabernan egin nuen. Ondoren, La Aceria eta Wendolyn diskoteketan ere aritu nintzen.

### Zelako jai motak antolatzen dituzue?

Batetik, Bilbon, adibidez, gau bateko jaiak izaten dira eta askotan diskoteketan izaten dira. Baina besitetik, guk musika

**"Musika entzuteaz gain, aldizkarietan kontsultatzen dut"**


ekipoa alokatzen dugu eta mendian, sototan zein tabernetan antolatzen ditugu jaialdiak.

### Zein musika sesio duzu gogokoen?

Mendian antolatu ditugun jaiak dira gehien gustatu zaizkidanak. Esate baterako, Galdakaoko urtegi batean egindakoa edota estali gabeko tokietan egindakoak izaten dira politenak. Musika ekipo on batekin bazoaz oso ikusgarria da.

### Jendea zelan ohartzen da horrelako jaialdiez?

"Flyer" izeneko txartel txikien bitartez, ahoz ahoz komentatzen, edota



tabernetan jarritako kartelen bitartez izaten da, batez ere. Jaialdi hauek "party" edota "rave" deitzen dira. Azken izen hori Ingalaterran ezagunak diren jaialdietatik dator, hutsik dauden sotoak edo poligonoak okupatzen dituzte eta ekipo guztiak bertan konektatuz egiten diren jaialdiak dira. Guk antzeko zeozer egiten dugu baina sototan izan beharrean mendian egiten dugu.


### Nola ikas daiteke Djaren lana egiten?

Egia esan Bilbon ez dago gauza handirik, baina musika eskolaren bat badago ikastaroak eskaintzen dituen. Hala ere, zure kabuz ikasteko aukera ere badago eta garrantzitsuena musika gustukoa izatea da. Ez

dago araurik, lasai jar dezakezu jota bat eta ondoren rock abesti bat, adibidez. Segun eta zelako jaialdia den musika mota bat edo bestea jartzen duzu. Beltzen musikako jaialdia bada, soul, funky...estiloak jartzen dira. Musika elektronikoa bada, ordea, House eta Teknoa erabil daiteke. Baita Rock & Roll musika edo ta Hip-Hopa ere askotan jartzen dira.

### Mahatserrian zelako jaialditan hartu duzu parte?

Inauterietan askotan antolatu ditugu jaialdiak eta jartzen den musika mota denetarik izan da. Mahatse-



sab. 13

DJ s  
groove storm  
he

rian, Santutxuko Zarata, Lanbroa, Gasteiz, Lube eta Hamaika tabernetan aritu naiz DJ modura.

### Teknologia berrien erabilpena erabatekoa al da Djaren aldetik?

Ez, ez da aurrekoa ezabatu, oraindik ere binilozko diskoak erabiltzen dira, batez ere musika elektronikorekin.

### Nondik hartzen duzu zuk musika informazioa?

Musika entzuteaz gain, aldizkarietan kontsultatzen dut, "Mondosonoro" eta "El Tubo" argitalpenak, batez ere. Baita urtean behin argi-

taratzen den "Dance de Lux" izeneko aldizkaria, musika elektronikorekin erreferentea baita.

### DJ lanetan izango duzu anekdotarik, ezta?

Bai, gauza kuriosoa da eta batzutan gertatzen dena, gau erdia daramazunean musika jartzen baten bat etortzen zaizu esaten "jarriko didazu, mesedez, zeozer dantzatzeko?"

### Eta beti musika artean... zuri zein musika gustatzen zaizu? Zein da talderik faboritoena zuretzat?

Niri musika estilo guztiak gustatzen zaizkit baina nire talde faboritua Kruder & Dorfmeister talde austriarra da. Hauek musika elektronikoa

jotzen dute Dub-arekin nahastuta.

### Mahatserrian badago zu moduko DJ gazterik?

Bai, Santutxun K-Billy, T Bone Willy, DJ And (Igor), Marax eta besteak. Euskal Herrian DJ onak egon dira eta egon badaude, baina askotan jendeak ez ditu ezagutzen, adibidez Wagon Cookin nafarrak oso pil-pil daude baina arrakasta European izan dute. Banda bat da Djarekin doana eta Londreseko diskoteketan jotzen dute. Aipatzeak dira ere, desagertutako Parafunk taldea, edo ta Gasteizeko Xabier Izar DJa.

**INMOBILIARIA**  
**Gelaya**  
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA - SALMENTA - ALOGERAK - ...  
Iturriaga, 92  
Telefonoa: 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo

Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08  
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net  
**Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza**

**PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!**  
**SAAK**



# horoskopoa



**Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.**  
Zenbat eta geroago egin, orduan eta gatxago izango da. Zenbat bider entzun beharko dozu hori?



**Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.**  
Dendaz denda ibili gura ez eta azkenean hor, zintzo-zintzo. Ai, koittadue!



**Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.**  
Zelan egingo dozu egin gura dozun guzti hori egiteko? Badakizu, ekina, ekinez, egina.



**Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.**  
Latigoa baino ez jatzu falta, domatzaile itzela zareala erakusteko. Beti egiten dotsu kasu. Zergaitik?



**Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.**  
Azken asteek opari polita ekarri dotsue. Ederra da, bai, baina ez egizu ahaiztu hartu dozun ardura.



**Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.**  
IMaria gora! Maria behera! Aspaldiko kanta baten aldaera da hori. Maria ondo dago baina bera barik be bizi leike.



**Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.**  
Morena-morena zagoz, potxola. Zeu bai azkarra oporak irailean hartuta...



**Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.**  
Zenbat eta jende gehiagogaz egon gero eta bakarrago sentitzen zara... Izango ote da ba futbola ez jatzulako gustatzen?



**Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.**  
Barreka eta barreka emoten dozuz egunak. Noiz arteztu behar dozu zeure bizimodua? Eta zein da zeure sekretua?



**Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.**  
Aurten ugerrean ikasteko uda txarra etorri jaku. Baina udagoiena...



**Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.**  
Justugunekoa be badauka gero! Zeuk bakarrik txosnako jenero erdia baino gehiago hustu zenduen...



**Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.**  
Lehengo baten pentsatu zenduena inoiz egin beharko dozu... Bitartean, horoskopoa irakurten segiduko dozu.

# agenda

## URRIAK 3

MAHAINGURUA. KOLDO SAN SEBASTIAN, JM ELKORO, JUAN JOSE PUJANA, IÑAKI EGAÑA, JOSEBA EGIBAR, ARNALDO OTEGI, MARIANO FERRER. BIDEBARRIETA. 19:00ETAN. ANTOLATZAILÉ: IPES. URRIKO IKASTAROA.

## URRIAREN 4 ARTE

ORTZADAR IPUIN LEHIAKETARA LANAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA. LANAK 'DEIA' EGUNKARIAK BOLUETAN DUEN EGOITZARA BIDALI BEHAR DIRA. LEHENENGO SARIAK 400 EURO EKARRI DIO IRABAZLEARI.

## URRIAK 5

SAN IGNAZIOKO INTXIXU IKASTOLAREN 25 URTE. HERRI BAZKARIA ETA ERROMERIA ALAITZ ETA MAIDERREKIN.

## URRIAK 6

MENDI IRTEERA. ANDARTO (1076 M) ETA AUMATEGIGAÑA (1.191 M) ARAOTZETIK. OÑATI. GIPUZKOA. EGUZKI LOREA MENDI TALDEA.

## URRIAK 8

HITZALDIA. "25 URTE ETA GERO, HIL ZORIAN AL DAGO EUSKARA?". JOSERRA GARZIA, TXOMIN PEILLEN, KIKE AMONARRIZ. ANTOLATZAILEA: IPES. URRIKO IKASTAROA.

## URRIAK 10

HITZALDIA. "¿SIGUE SIRVIENDO EL MARXISMO?". EDUARDO HARO TECGLÉN. LA BOLSA. 19:30ETAN. ANTOLATZAILEA: IPES. URRIKO IKASTAROA.

## URRIAREN 12-13

MENDI IRTEERA. PEÑA SAGARA (2042 M) PEJANDATIK. CANTABRIA. EGUZKI LOREA MENDI TALDEA.

## URRIAREN 27

AEK EGUNA SANTUTXUN.

